



Plazako multzoa (Areatza)

1338.ean sortu zuen Bizkaiko Jauna zen Juan Nuñez de Larak Villa de Haro -Villaro- izeneko hiria, toki agor batean, biztanlerik gabean, Arratiako bailaran. Barazarreko mendatean zehar Gasteiz eta Bilbo lotuko zituen bidea, merkataritza-ibilbideari indar emateko besteko biztanleria bertan ezartzea zen beraren asmoa sorrera harekin. Hiri berria ez zen sekula ere jendetsuegi gertatu, baina bi kale paralelo eta maila ezberdinetan antolatuta garatu ahal izan zituzten bertan - Yusera eta Susera, historia-izendapena erabiliz gero -, eta hara eta hona bidaiari ibiltzen zirenentzat lagungarri ziren zerbitzu-hornidura ere bai, ostatuak esate baterako.

Beheko kale luzean, etxe eta jauregi interesgarri zenbait daude lerrotuta bertan, betidanik izan da nahikoa tarte zabala eta errektangeluarra, gaur egun Gudarien Plaza izena daukana, eta bertara biltzen dira garai ezberdinetako eraikin zibil batzuk, interesgarri geratzen den hiri-multzoa osatuz.

Plaza bera litzateke azpimarratu beharreko lehendabiziko elementua, kalearen ibilbidearen erdian azaltzen den hutsaldi gisa. Bertan altxatutako eraikinetan antzinakoena **Cortázarren edo Riscalekoen Jauregia** da, lerroari eusten dion arren, salbuetsita dagoen bizitza-elementua. Fatxada da bertan nabarmenena, eta bi erregistro har daitezke aintzat. Beheko aldekoa silarrri urdinez eginda dago, oso ondo eskuairaturiko atalek osatuta guztiz. Albo batera irekitzen da sarrera, erdi-puntukoa, erradio-dobekek osatzen duten abanikoa, XVI. mendean oso ohikoa zena, eta bigarren mailako beste hiru bao: ateburudun leihoak erregularizatu gabe, hori ere oso ohikoa zelarik orduko sasoi hartan. Ez dago, ordea, oso argi goiko solairuaren erregistroa data berekoa denik; geroagokoa dela dirudi, edonola ere, beste irtenbide bat erabili zen, txiroagoa, adreilu trinkoz egina. Oin honetara bilduta dago solairu noblea, eta ateburudun bost kofaduretara irekitzen da, erdialdean balkoi zabala duelarik, burdinazko karelarekin, eta XVII. mendekoa, burdinsarearen burdinurtuari begiratuz gero. Maila horren gainean dago *ganbara*, ateburua duten lau leihotxorekin.

Adreiluz apaindutako margoek osatzen dute jauregiko balio berezietako bat. Horrelako apaindurak nahikoa sarritan ematen ziren Bizkaian XVIII. mendearen bigarren erdian. Eragileei sekula ere ez zitzairen ahazten -eta honako honetan ere ez margoen artean onibarraren armak ere irudika zitezten agintzea-.

Jauregiaren aurrean, metro gutxi batzuetara altxatzen da **Alkatxofaren Iturria**, iturriaren oinarritzko atala den zutabearen erremate gisa duen landare-elementuari zor zaiolarik izen hori. Zutabea funts doriar lerdina da, plinto baten gainean oin hartzen duena eta plinto hori, bere aldetik, ur-zorrotadaren sistema prismatikoa dago paratuta, beraren inguruan zilindro erako harroina duela. Diagonalean antolatuta dauden uraren lau zorrotadak aberastuz, pinakuluak daude.

Iturri honi buruzko albistea jasota dago agirietan, eta iturria egiteko idatzi ziren bi proiektuak gorde ere, gordetzen dira, Akademiako kidea zen Martín de Saracibarrek 1851n izenpeturik.

Atzeko aldean barrena doan Arratia ibaiaren aldeko ia albo guztia betetzen du hirugarren eraikinak. **Eskola zaharren** eraikina da, izan ere, gaur egun hainbat zereginetarako erabiltzen den egoitza, beraren dimentsioei esker, erabilgarri askoa gertatzen da. Eraikin handia da, fatxada bi solairutan egituratuta daukana. Dimentsio etzan markatua duelarik, hiru modulutan dago banatuta: erdikoa da nobleena, silarriz egina, eta alboetako biek, berriz, luzituta daukate goiko aldea. Beheko erregistroa, berriz, arkupe zabal baterako hamaika tartez osaturiko arku-sail luzea da eta goikoa, bere aldetik, zortzi leihok eta hiru balkoik osaturiko sekuentzia. Erdiko gorputzean daude balkoiak, balkoi korritu bati irekita.

Baoak xafren bidez daude definituta eta arkuetakoa harroinetan ere xafak dituzte kapitulek. Arratiako arkitektoa zen Pedro Luis de Bengoecheak zein datatan diseinatu zuen -1862- kontuan hartuta, nolabaiteko arkaismoa sumatzen da estiloari dagokionean baina, azken batean, noble gertatzen da eraikina, nahiz eta monumentu jite gehiegizkoa daukan hasiera batean zeukan irakaskuntza-betebeharra aintzat hartuta.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Plazako multzoa

Areatza. (*Gudarien Plaza*).

Nola heldu:

Areatza Hiria N-240 errepidearen ondoan dago (Barazarreko mendatean zehar, Bilbotik Gasteizera doan errepidea). Hirigune Historikoaren erdi-erdian dago Plaza.

Bisiten ordutegia:

Edozein unetan ikus daitezke.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Areatza*)

- Erukiñe kaleko 2 zenbakian dagoen etxe gotikoa.
- San Bartolome eliza.

(*Zeanuri*)

- Ozerimendiko San Lontxo basiliza.
- San Justoko karobia.
- Ugarka baserria.
- Kallarte Auzuneko baserriak.